

# ITXI TXORROTA!

- Itxi txorrota urik behar ez duzunean, adibidez: hortzak eskuilatzean, gorputza xaboitzean, bizarra moztean, harraskan zerbeit garbitzean... (irekita dagoen txorrota batek minutuko 12 litroko ur kontsumoa izan dezake).
- Garbigailua ahalik eta gehien bete, arropa kolorearen eta ehunaren arabera sailkatuta; horrela, programa homogeneoak eta zama handikoak egiteko aukera izango duzu ura eta energia aurreztuz.
- Zure eguneroko higieanean, bainua hartu beharrean, dutxatu (Neurri honek pertsonako eta eguneko 150 litroko aurrezpena du).
- Jakiak egosi dituzun ura (barazkiarena bezikiki), behin hoztu ondoren, etxeko landareentzat oso ongarri ona da.
- Ez ezazu erabili komun-ontzia zakarrontzi modura, gure hirietako ur zikinak garbitzea oso garestia baita. Gainera ur zikinak arazteko sistemarik ez dagoenean, komun-ontzitik botatakoa gure erreka eta ibaie-tara joaten da, eta horrek kutsadura sortzen du eta marraskarientzat aparteko elikadura da.
- Ura aurrezteko gailuak ipini itzazu etxeko txorrotetan (zurrusta-hausteko gailuak) eta %20ko aurrezpena lortuko duzu erabiltzen duzun bakoitzean, ur-emarian al-daketa nabarmenik antzeman gabe.
- Etxe-tresna elektriko berriak erosterakoan aukera itzazu beraien programetan ur kontsumoa kontuan izaten dutenak (garbigailua eta ontzi-garbigailua).
- Era berean, zure etxeko komuna aldatu behar baduzu aukera itzazu aurrezteko sistemak dituzten tresna sanitarioak, besteak beste: zurrusta-hausteko gailuak; ur-emaria kontrolatzeko bi botoiak dituztenak (bitartean, komuneko tangari urez betetako botila sartuta ur kontsumoa murrizteko aukera duzu erabilpen bakoitzean); tresna sanitario integratuak, non konketako ura tangara bideratzen den...
- Txorrota eta hodietako matxurak ahalik eta azkarren konpondu (Tantaka darion txorrota batek egunean 30 l ur galtzen ditu alferrik).
- Ez ezazu lixiba gehiegirik erabili, arazte-gietako bakterioen oreka hausten duelako eta beraien lana zaildu. Leungarria oso kutsakorra da eta gaurko detergenteek dituzten ezaugarriak ikusita, leungarriak baztertu daitezke. Erabili detergente ekologikoak, fosfato eta tentsoaktiborik gabe hobeak dira ingurumenarentzat.



TOLOSAKO  
UDALA



tolosakingurumenzentroa

TOLOSA2015